


ERMUA:
HIRIA AZTERTZEN



AURKIBIDEA

SARRERA.....	3
1. GEOGRAFIA.....	4
1.1. KOKAPEN GEOGRAFIKOA.....	4
1.2. EZAUGARRI FISIKOAK.....	7
1.3. POPULAZIOA.....	15
1.4. EKONOMIA.....	18
2. HISTORIA.....	20
2.1. HISTORIAURREA.....	20
2.2. ANTZINAROA.....	20
2.3. ERDI AROA.....	20
2.4. ARO MODERNOA.....	24
2.5. ARO GARAIKIDEA.....	24
3. ARTEA.....	28
3.1. VALDESPINA JAUREGIA.....	28
3.2. SANTIAGO ELIZA.....	30
3.3. LOBIANO JAUREGIA.....	31
4. ERANSKINA: ERMUKO LURRALDE-MUGEN ARTEKO IBILBIDEA.....	36
5. BIBLIOGRAFIA.....	37

SARRERA

Aurkezten dizuegun lanak "Ermuko Geografia, Historia eta Arte Ondarea" du izena, eta DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleei zuzenduta dago.

Honen bitartez, bi helburu nagusi lortu nahi ditugu:

- Aipatutako mailetan ikasten diren oinarrizko edukiak finkatu eta sakontzea.
- Ikasleen ingurua (geografia, historia, artea...) hobeto ezagutaraztea.

Lan honetan Ermua dugu aztergai (bertan lan egiten dugulako, hain zuzen ere), baina lan proiektu hau ez da era itxian planteatzen, eta, hasierako asmoak bete nahian, hemen proposatzen ditugun materialak zuen interesekoa den herri edota hiriaren arabera molda ditzakezue.

Gure ustez, Gizarte Zientzietara era praktikoa batez hurbiltzen bagara, diziplina hau ikasleei askoz errazagoa izango zaie, eta, aldi berean, hobeto ulertu eta ikasiko dituzte munduan gertatzen diren prozesuak.

Esku artean duzuen unitate honen bertuterik handiena da ingurune hurbilaren azterketa diziplinartekoa egiten duela.

1. GEOGRAFIA

1. 1. KOKAPEN GEOGRAFIKOA

Lurralde Historikoa: Bizkaia
Eskualdea: Durangaldea

Alderdi Judiziala: Durango
Hedadura: 6,2 km²

Ermua Bizkaiko lurraldearen hego-ekialdeko muturrean dago kokatuta, Durangaldeko eskualde naturalaren barnean, eta Durangaldea dituen ezaugarri fisiko berberak ditu. Hala ere, kontuan hartu behar da Gipuzkoako mugatik hurbil dagoenez Debabarrenarekin harreman estuagoa izaten duela sarritan.

Jarraian, Ermuko kokapen geografikoa landuko dugu hainbat ariketaren bitartez:

1. ARIKETA: PENINTSULAKO KOORDENATU GEOGRAFIKOAK

Aurki itzazu zure herriko koordinatu geografikoak ondoko mapan. Horretarako, ez ahaztu aurreko ikasturteetan meridioa eta paraleloei buruz ikasi genuena. Gogoratu:


Meridianoak Poloak lotzen dituzten zirkunferentziak dira. Londonetik pasatzen denari zero meridioa edo Greenwicheko meridioa deitzen zaio. Greenwicheko meridioa bi zati berdinetan erdibitzen du Lurra: alde batean, ekialdea eta bestean, mendebaldea.

Paraleloak, aldiz, Lurraren errotazio ardatzari perpendikular doazkion irudimenezko zirkuluak dira. 0° paraleloa ekuatorea da, eta bi hemisferiotan banatzen du planeta: ipar hemisferioa eta hego hemisferioa. 90°-ra bi Poloak daude. Gradu bakoitza unitate txikiagotan banatzen da: minutuak eta segundoak.

Marratzu mapan:


- 0°-ko paraleloa, ekuatorea.
- 0°-ko meridioa, Greenwich.
- Penintsulako koordinatuak.

Erreparatu jarri dizugun mapa ereduari. Bertan Ozeano Atlantikoa erdian agertzen da, eta, jakina, Europa gure munduaren erdigune bezala azaltzen zaigu.




2. ARIKETA: EUSKAL HERRIKO KOORDENATU GEOGRAFIKOAK.

Orain, Euskal Herriko eta Bizkaiko koordinatuak aurkitu alboan duzun mapan. Gradutan neurtu kokapena.




3. ARIKETA: ERMUKO KOKAPENA.

Orain, beheko mapan marka ezazu Ermua Bizkaiko eta zure eskualdeko mapetan.



4. ARIKETA: ESKALA.

Gogoratu mapak lurraren edo lur zati baten irudiak direla. Mapetan errealitate geografikoa irudi bihurtzen da, baina, jakina, askoz txikiagoa. Horregatik, erlazio horretaz jabetzeko, mapa guztiek eskala bat izaten dute. Adibidez, 1/50.000 edo 1/100.000. Horrek esan nahi du errealitatea mapa baino 50.000 edo 100.000 aldiz handiagoa dela.



Demagun ondoko mapak markatuta duen eskala 1/1.000.000koa dela. Jakin nahi baldin badugu zein den 2 cm-ra dauden bi punturen arteko egiazko distantzia, eskalaren arabera 2.000.000 cm-ra egongo dira, hau da, 20.000 m-ra edo 20 km-ra. Zeren eta aipaturiko eskalak esaten digu mapan 1 cm errealitatean 1.000.000 cm direla.

Orain proposatzen dizugun ariketan benetako distantziak (km-tan) aurkitu behar dituzu:

- Ermua – Gasteiz:
- Ermua – Maule:
- Ermua – Donostia:
- Ermua – Bilbo:
- Ermua – Tutera:
- Ermua – Iruflea:

1.2. EZAUGARRI FISIKOAK

1.2.1. ERLIEBEA

Udallerriaren lurraldeak Aro Sekundarioan sortu ziren, eta Aro Tertiarioaren azken aldiko mugimendu orogeniko alpetarren ondorioz altxatu eta tolestu ziren.

Mugimendu horien ondorioz, udal mugartea zeharkatzen duten kareharri eta hareharrizko mendi egiturak sortu ziren: ekialdean mendi lerro bat altxatzen da Udala menditik Ermuraino; bertan dago tokirik garrantzitsuena, Urko mendia alegia, Deba eta Artibaiko arroak banatzen baititu. Bere mugen barruan aurki ditzakegun beste mendiak hauexek dira: Irumugarre, Aristizabal, Kariagaña, Uretamendi, Untzama eta Sakona.



Orain, bete ezazu honako taula hau, mendiak altueraren arabera ordenatuz. Horretarako, (www.euskomedia.org) edo (www.mendikat.com) web orriak begiratu:

Mendiak	Altuera (m)

1.2.2. KLIMA


Ermuko lurraldea Europa erdialdeko azpi-eskualde klimatiko atlantikoan dago. Horren ezaugarri nagusia klima heze eta epela da; ez dago denboraldi idorrik, eta urtaro hotza laburra da. Aldagai makroklimatikoaren batezbesteko balioak honako hauek dira:

Aldagai klimatikoa	Batezbesteko balioa
Urteko batezbesteko tenperatura	12° eta 14° C artekoa
Hilabeterik hotzeneko batezbesteko tenperatura	6° eta 10° C artekoa
Hilabeterik beroeneko batezbesteko tenperatura	18° eta 20° C artekoa
Izozte-aldiaren batezbesteko iraupena	4 eta 6 hilabete bitartean
Urteko batezbesteko ETP	650 eta 750 mm bitartean
Urteko batezbesteko prezipitazioa	1.200-1.600 mm
Urteko batezbesteko defizita	0 - 50 mm
Aldi lehorraren batezbesteko iraupena	0 eta 1 hilabete bitartean
Neguko prezipitazioa	%32
Udaberriko prezipitazioa	%22
Udazkeneko prezipitazioa	%30

Ermuko lurraldeen ezaugarri klimatikoak ezartzeko, Eibarreko estazioaren datuak erabiltzen dira, hori baita hurbilena. Estazio hori 121 m-ko altueran dago, eta bertatik hartutako datuak ondoko taulan agertzen dira:

Urteko batezbesteko tenperatura	13,5° C
Urteko hilabeterik hotzeneko tenperaturarik beroenen batezbestekoa	11,2° C
Hilabeteko tenperaturarik hotzenen batezbestekoa	2,1° C
Izozterik gabeko egunak	219
Termizitate indizea	276
Urteko batezbesteko prezipitazioa	1.429 mm
Udako batezbesteko prezipitazioa (ekaina, uztaila eta abuztua)	180 mm
Udako mediterraneotasun indizea (uztaila, abuztua eta iraila)	1,8

Prezipitazio gehieneko aldia urria eta apirila bitartekoa izaten da. Prezipitazio gehien abenduan izaten da, eta gutxien, martxoan. Zazpi hilabete horietan biltzen da urteko prezipitazio osoaren %87tik gorakoa, eta hilabeteko prezipitazioa 100 mm-tik gorakoa izaten da.



Urteko prezipitazio gutxieneko aldia udaberriko eta udako hilabeteak izaten dira. Aldi hori bat dator tenperatura beroenekin, baina ez da benetako lehorte-aldirik izaten.

Temperatura-erregimenak ez du muturreko gorabeherarik: neguak freskoak izaten dira, ez oso gogorrak, eta udak epelak eta bero handiegirik gabeak. Urteko gorabehera termikoa 22,9°C-koa da. Horrek erakusten du ezaugarriak ez direla kontinentalak eta itsasoaren eragina handi samarra dela.

1. ARIKETA:

Marka itzazu Ermuko kliman eragina daukaten faktoreak.

- Kantauri itsasoaren hurbiltasuna
- Indiar ozeanoaren hurbiltasuna
- 13°-ko Ipar latitudea
- 43°-ko Hego latitudea
- 43°-ko Ipar latitudea
- Landaretza joritasuna
- Basamortua
- 4.000m baino gehiagoko altuera
- 1.000m-ko altuera
- Erliebe zabala
- Erliebe gelaunetsua

2. ARIKETA

Herria lekututa, orain proposatzen dizuegu bertako klimograma egitea (Ongarai institutuko meteorologi estaziotik 2003an harturako datuak).

Hilabeteak	U	O	M	A	M	E	U	A	I	U	A	A	Urteko b.b. t°	Urteko euriak
Hileko batez besteko tenperaturak	7,1	7,1	12	11	15,3	21,2	20,2	25,6	18,6	13,5	11,3	8,3		
Hilabeteke euriak	257,3	161,3	48,1	53,1	180	36,7	16,9	30,9	80,1	184,1	179,8	167,7		

Orain, aztertu klimograma galdera hauei erantzunez:

- Euriteak:

- ◆ Zein dira hilabeterik euritsuenak eta zein lehorrenak?
- ◆ Zein da urtarorik lehorrena?
- ◆ Urteko batez besteko euritea.

- Tenperaturak:

- ◆ Zein dira hilabeterik beroenak eta zein hotzenak?
- ◆ Kalkula ezazu urteko batez besteko tenperatura.
- ◆ Jarraian, kalkula ezazu oszilazio termikoa, hau da, hilabeterik beroenaren eta hotzenaren arteko aldea gradutan.

1.2.3. LANDARETZA ETA PAISAIA

Ermuan gaur egun ikus dezakegun landaretza gizakiak antzinako landaretzan egindako hainbat jardueraren (nekazaritza, abeltzaintza, industria eta basogintza) ondorio dugu.

Gizakiaren eraginak landaretza-paisaia aldatu eta dibertsifikatu egiten du.

Ermuko udal mugartean dauden landaretza-unitateak honakoak dira:



Landaretza-unitatea	Azalera (Ha)	%
1. Artadi kantabriarra	22,46	3,48
2. Harizti azidofiloa eta harizti/baso misto atlantikoa	4,15	0,64
3. Harizti azidofilo gazte edo degradatua	35,55	5,50
4. Gailurreko eta haitzebakien oineko baso mistoa	0,90	0,14
5. Pagadi azidofiloa	1,09	0,17
6. Halfzadi kantabriarra	1,96	0,30
7. Txilardi/otadi/iratzedi atlantikoa	29,87	4,62
8. <i>Brachipodium pinnatum</i> -en albitz-belardiak	0,97	0,15
9. Belardi menditarra	0,32	0,05
10. Belardi eta laboreak	58,08	8,99
11. Landaretza erruderal nitrofiloa/antropogenoa	72,67	11,24
12. Basogintzako lursail landatuak	403,56	62,44
13. Harrobiak	14,68	2,27

Basoz osaturiko paisaia da, isurialde kantabriarrean oso ohikoa; erliebe malkartsu eta konplexuaren gainean baserri eta herriak, belardiak, hostozabalen zuhaitziak eta konifera-lursailak topa ditzakegu.

Ermuko paisaiaren ezaugarri nagusia, hain zuzen ere, lurrazal aldapatsua da. Gailurrak eta tokirik altuenak elkarrengandik hurbil daude, gailur horien eta ibarren hondoen artean malda handia dago, eta haranak oso estuak dira, malda handiko mendi-hegalen artean estuturik.

Mendiek altuera txikia dute (altuena Urko mendia da -791 m-), baina haranen hondotik eta ibarretatik, hurbiltasunagatik eta mende-hegalen maldagatik, menditzar izugarriak balira bezala ikusten dira, ikusmenaren eremua ixten baitute; izan ere, ikuspegia hamarnaka metrora baino ez da ailegatzeko. Mendiak dira paisaian nagusi; landaretza paisaiaren osagai garrantzitsua bada ere, bigarren mailan geratzen da.

Paisaia honen eragile garrantzitsuenetariko bat nabarmendu behar da: gizakiaren jardura (hirigunea, errepideak, eraikinak, etab., haranaren hondoen kokatu ditu). Tokirik altuenetan edota maldarik handienekoetan, gizakiaren eragina sumatzen da landaretza eta zoruaren erabilera artifizialak (berroihaneztatzak, belardiak) edota hainbat baserri bakan ikustean.

URKO-ALDE harrobiari dagokionez, esan behar da udalerriaren paisaian harrigarria gertatzen dela. Toki batzuetatik begiratuta, lurrazalaren gorabeherak harrobia ikustea eragozten dute.


1.2.4. HIDROGRAFIA

Ingurune fisikoa aztertzerakoan, ura ezin da aintzat hartu beste elementuetatik bananduta, elkarren artean dependentzia handia baitago. Urak funtsezko zeregina du eskualde baten kliman, zoruaren nahiz landaretzaren atala den aldetik. Ur-masaren eta ibilguen kokalekua, arro hidrografikoen itxura eta uraren kalitatea nahiz kopurua hainbat eragileren mendean daude: topografia, maldak, agerikotasuna eta gizakien jarduera, besteak beste; eta azken horiek, era berean, lehenengoaren eragina izan ohi dute.



Atal honetan Ermua udalerriko gainazaleko uren formak aztertu nahi ditugu, ezaugarriak eta banaketari dagokienez.

Ermua udalerria Deba ibaiaren arloan dago, eta lurraldearen hegoaldean dabilen Ego



ibaiaren azpi-arroan. Azken hori mendebalde-ekialde norabidean ibiltzen da, eta Zaldibar udalerriarekin muga naturala egiten du. Urak Deba ibaian isurtzen ditu, Eibarretik beherago.

Ego ibaiak Erruko hirigunean bat egiten duten Berano, Rekalde, Hambre eta Urta erreken urak jasotzen ditu. Ur-ibilgu horien ezaugarri nagusia da hirigunetik igarotzean guztiz kanalizaturik daudela edo ia-ia ibai-bazterrik ez dutela.

Orokorrean, garrantzi txikiko ur-ibilguak dira; irregularrak dira, eta ekaitzen mendean egon ohi dira. Udan ur-emari txiki-txikia izaten dute. Mendi-hegal malkartsuetan zehar ibiltzen dira, eta bertan isurketa-urak jasotzen dituzte.

Orain, zure herritik pasatzen den ibairik garrantzitsuena (Ego) aztertzea proposatzen dizugu:

1. ARIKETA

Ariketa honetan Ego ibaiaren profila egin behar duzu. Horretarako, lehenengo, ikertu:

- Non jaiotzen da Ibaia?
- Itsasotik zenbat metrora jaiotzen da?
- Zein herritatik pasatzen da?
- Zenbatekoa da herri horien altuera metrotan?
- Non isurtzen ditu bere urak?
- Zenbat kilometrora isurtzen ditu urak?


Hau guztia jakin ondoren, jarraian duzuna bezalako taula batean, goian aipaturiko datu guztiak jarri.

Jaiotza

Altuera metrotan								
Luzera kilometrotan								
Auzoen izenak								

Goiko koadroan jarri ditugun datuak kontuan izanda, osatu azpian duzun grafikoa zure herriko ibaiaren profila ikusteko.

Altuera metrotan



2. ARIKETA

Ibaiaren profila ikusi ondoren, zure herritik pasatzerakoan ibaiak daraman ura nolakoa den aztertu: ibaiaren tarte bat aukeratu eta bertako uraren kalitatea analizatu. Horretarako, jarraian duzun galdeketa erabili dezakezu:

URAREN KALITATEA	EZAUGARRIAK
Zein koloretakoa da ura? Gardena, berdea, marroia...	
Nolako usaina du?	
Zenbateko sakonera du ibaiak? Handia, txikia, erdizakoa...	
Gutxi gorabehera zein tenperatura dauka ibaiko urak? Hotza...	
Nola igarotzen da ibaiko ura? Azkar, poliki, ur geldia...	
Nondik datoz ibaiko urak?	
Ibaian landararik hazten da? Zenbat? Asko, gutxi...	
Uretan badago bizitzarik? Zenbat eta zein motatakoa? (gutxi gorabehera)	
Belar edo limo geruzarik ikusten da ibaian? Zenbat? Asko, gutxi...	
Aingirabelar, olio edota bits aztarnarik ikusten da ibaian? Esan dezakezu, baldin eta badago, jatorria?	
Zaborrik ikusten da uretan?	
Zaborrik ikusten da ibai ertzean?	
.....	

3. ARIKETA

Aztertu ibaian lortutako laginak laborategian. Jarraian, azaldu zer kutsadura eragile agertzen den bertan eta eragile horiei dagokien ondorioak edota eraginik antzematen den lagin horietan.

KUTSADURA ERAGILEAK	ONDORIOAK	ERAGINA
Gai organikoak. <ul style="list-style-type: none"> Hiri hondakinak Baserri hondakinak Lantegi hondakinak... 	<ul style="list-style-type: none"> Fosfato eta nitrato mailen handitzea Uraren oxigenoa erabiltzen duten alga eta bakterioen gehitzea 	Arrainek ezinbestekoa dute oxigenoa bizitzeko. Beraz, fosfato eta nitrato asko dagoen uretan ezin dira bizi.
Jalkiak: Ibai ertzetatik, baserrietatik, meategietatik, eraikuntza guneetatik...	<ul style="list-style-type: none"> Ibaien lohitzea eta beren ur korrontearen baretzea 	Ibaien uharkak jalkiz betetzen dira, eta hauetariko asko kutsatuak izaten dira.
Hondakin toxikoak: Metalak, disolbatzaileak, produktu petrokimikoak, gai astunak. Industri hondakin organikoak. Detergenteak...	<ul style="list-style-type: none"> Ibaitako bizitza osoaren pozoitzea 	Ibaitako bizitzaren desagertzea eta gizakiengan gaixotasunak agertzea: minbizia, alergiak...
Nekazaritza-produktu kimikoak: Ongarriak, pestizidak...	<ul style="list-style-type: none"> Nahiz eta beren erabilpena aspalditik baztertuta egon, lur zoruan eta ibai uharken jalkietan gelditzen dira. 	Elikadura-katearen bitartez, arrainetatik gizakienganako bidean izadi osoa pozoitzen da.

1.3. POPULAZIOA

Zure herriko populazioa aztertuko duzu orain, ikasitako edukiak aplikatuz. Datuak biltzeko herriko udaletxeak argitaratuta daukan urteko gida (www.ermua.es) eta (www.eustat.es) web orriak erabil ditzakezu.

1.3.1. BIZTANLERIAREN HAZKUNDEA

◆ **Hazkunde begetatiboa**

- Jaiotzak, heriotzak, migrazioak (kanpora, bertara)...
- Nahi izanez gero, ondoko taula erabili dezakezu:

		Guztira	Tasa (%)
Jaiotzak			
Heriotzak			
Migrazioak	Emigrazioak		
	Inmigrazioak		

Datuak bildu eta gero, honako galdera hauei erantzun:

- Nolakoa da hazkunde begetatiboa?
- Nolakoa da saldo migratorioa?
- Nolakoa da benetako hazkundera?
- Eraitza hauek guztiak kontuan izanda, esango zenuke aldaketarik gertatu dela zure herrian azken urteotan? Hausnartu horretaz.

◆ **Biztanleri dentsitatea**

Leku edo lurralde batean km²-ko zenbat jende bizi den jakin ahal izateko, **biztanleri dentsitatea kontzeptua** erabiltzen dugu, ondoko formula honetaz baliatuz:

$$\text{Dentsitatea} = \frac{\text{Biztanle kopurua}}{\text{Azalera}}$$

- Bilatu datuak eta kalkulatu zure herriko dentsitatea eta balorazioa egin.

◆ Biztanleriaren bilakaera

- Orain, bilatu zure herriko eta Bizkaiko populazioaren bilakaeraren datuak eta egin grafiko lineala.
- Konparatu eta balorazioa egin.

URTEAK	BIZKAIA	ERMUA
1900		
1910		
1920		
1930		
1940		
1950		
1960		
1970		
1980		
1990		
2000		

1.3.2. BIZTANLERIAREN EGITURA

- Bete ondoko koadroa eta dagokion adin piramidea egin eta aztertu.

Adina	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira
<5			
5-9			
10-14			
15-19			
20-24			
25-29			
30-34			
35-39			
40-44			
45-49			
50-54			
55-59			
60-64			
65-69			
70-74			
75-79			
80-84			
>85			
GUZTIRA			

1.4. EKONOMIA

Antzinatek merkatarizan eta Erdi Arotik industrian aritutako hiria dugu. Bere kokapen pribilegiatua eta bere burdin tradizioa direla eta, Ermua asko hazi da, nahiz eta berandu industrializatu. Ibai-ibar batean kokatua, Deba eta Durangaldea komunikatzen dituen bide naturala da. Santiago Bidea eta A-8 autopista bezalako bide garrantzitsuz zeharkatuta egoteak probetxu handia ekarri dio ekonomikoki garatzeko. Eibarretik hurbil egoteak eta komunikazio onak izateak (N-634, tren, A-8 autopista...) industria finkatzeko toki egokia bihurtu dute Ermua, metalurgia nagusi izanik.

Izan ere, industria da hiriko sektore ekonomikorik garrantzitsuena eta populazio aktiboaren ehunekorik handiena biltzen duena. Gainera, Ermuko industriaren eragina inguruko udalerrietara zabaltzen da; Mallabiko eta Zaldibarreko langile asko, esate baterako, Ermuan egiten dute lan. Eibarrekin ere oso lotura ekonomiko estua dauka antzinatek, eta, gaur egun, adibidez, Ermuak bere auzokoaren lantegi batzuk bereganatu ditu edota hainbat ermuar Eibarren daude lanean.

Lehenengo sektoreari dagokionez, oso txikia dela esan behar da (normala denez hiri industrial batean), eta hirugarren sektorea, zerbitzuena, ez dago oso garatuta, industriaren nagusitasun hutsagatik.

1. ARIKETA

Zure hiriko sektore ekonomikoak aztertzeko gidoia :


- ◆ Zenbat pertsonak lan egiten dute lehen sektorean?
- ◆ Zenbatek, bigarreanean?
- ◆ Eta hirugarrenean?
- ◆ Zenbat langabetu daude? Kalkula ezazu ehunekotan.
- ◆ Guztietatik zenbat dira emakumezkoak? Eta gazteak? Kalkulatu ehunekotan.

Datu hauek guztiak INEMeko bulegoan eskatu edo www.eustat.es web orrian lor ditzakezu. Bildu eta gero, sartu datuak honelako grafiko batean:

Populazioa	Sektoreak	Zenbat	Portzentajea
Aktiboa	Lehen sektorea		
	Bigarren sektorea		
	Hirugarren sektorea		
	Langabezia	Zenbat	Portzentajea
	Emakumezkoak		
	Gazteak		
	+40 urte		
....			
Pasiboa			

2. ARIKETA

Aurreko taulan jarritako datuekin grafiko zirkular bat egin behar duzu (gogoratu aurreko klaseetan ikusitakoa).




Grafikoak ikusi ondoren, ondorioren batzuk atera ditzakezu:

- Sektore desberdinei dagozkienak:
 - ◆ Zein sektoretan lan egiten dute langilerik gehienek zure herrian? Horrela izan da beti?
 - ◆ Zergatik uste duzu sektore jakin batzuk garrantzia galtzen doazela beste batzuk indartzen doazen bitartean?
 - ◆ Konkrétuki zer gertatu da zure herriaren kasuan? Zergatik?
- Langabeziari dagozkionak:
 - ◆ Zein dira langabezia gehien jasaten dutenak?
 - ◆ Zergatik uste duzu gertatzen dela?
 - Zer egin daiteke herritarrik langabezian egon ez dadin?
 - Langabetuek beraiek?
 - Gainontzeko hiritarrok?
 - Guk geure etorkizunari begira?

2. HISTORIA

2.1. HISTORIAURREA

Gutxi izan arren, Goi Paleolitoko (k.a.30.000/10.000urte) Cromagnon gizakiaren aztarnak baditugu Durango aldean, Bolinkoba kobazuloan, batez ere. Ermua aldean, zeltar lurperatzeak aurkitu dira Brontze Aroko Kobagorri VI edo Gentilkoba bezalako aztarnategietan: hildakoak erre eta gero, errautsak atabaka batean sartu eta lurrean ehorzten ziren. Trikuharriak ere topatu dituzte Ermua inguruan, eta horietako bost aztertuak izan dira.



1. ARIKETA

Badakizu zer den trikuharria? Bilatu informazioa horri buruz eta deskribatu ondoko irudia.


2.2. ANTZINAROA

Erromatarren aurreko garaian, gaur egungo Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldeetan karistiarrek, autrigoiak eta barduliarrak bizi ziren -Ermua karistiarren eremuan zegoen-. Baskoiak, berriz, Nafarroan zeuden batik bat, nahiz eta, askotan, aurreko hiru herriek baskoi izena jaso izan duten.

Ez dago jakiterik noiz eta zelan sartu ziren herri horiek erromatar inperioaren barruan, -kantabriar gerren aldiari behar bada (k.a 26-25ean)-. Dena den, erromatarren aurkako erresistentziarik ez da inon aipatzen, eta badakigu tribu horien lurraldea izan zela gutxien erromanizatu zena.

2. ARIKETA

Zein tribu bizi zen zure herrian Antzinaroan? Markatu alboko mapan.



2.3. ERDI AROA

Agiri zahar batzuetan Ermuari "villa ferrera" ezizena eman zaio, zalantzarik gabe burdina izan duelako langai aspaldidanik, Deba Ibar osoak izan duen legez.

Muga-mugan egotearen eraginez, tirabirak etengabekoak izan dira. Leinuen arteko borrokak zirela eta (ganboatarrak eta oinaztarrak), dorre eta harresiak eraiki ziren hiria defendatzeko. Iturrizak *Bienandanzas* liburuan adierazi zuenez, 1468an Diego Gómez de Sarmiento kondeak itsu-itsuan jo zuen Zaldibarreko ganboatarren kontra, baina horiek su eman zieten euren etxeei eta Ermuko Hiribildura joan ziren babes bila.

Bakealdietan harreman onak izan zituzten, merkataritza tarteko. Horrela, aspalditik pasatzen zen Ermutik Bizkaia eta Gipuzkoa lotzeko errege-bidea, herriaren oparotasunaren ardatz. Erromesak bertatik igarotzen ziren Santiagora joateko, Ermua Irundik Itziarrerako ibilbidean baitzegoen. Izan ere, Ermuko eliza nagusia Santiagoren omenez egin zen, eta jauregi batzuen aurrealdeetako armarrietan ere hainbat eta hainbat txirla agertzen zaizkigu, haren erakusgarri. Beraz, Santiagoko Bidea Ermutik pasatzen zela nahiko nabaria da.

Baina noiz fundatu zen Ermua? Ez dago jakiterik, ez baitago Ermuko lehenengo hiri-gutunaren berri. Hala ere, Don Juan infanteak 1372ko urtarrilaren 20an, Burgosen, baieztapen-gutuna eman zuen, eta, beraz, hiri-gutuna urte hori baino lehenagokoa dela pentsatu behar da. Historialariek aurreko mendearen azken urteetan fundatu zela diote, Don Lope edo Don Diego López de Haroren jaurreriaren barruan, Durangoko Tabira hiribilduarekin batera.



1372ko baieztapen-gutunean, Ermua Hiribilduari eman zitzaizkion, Bizkaiko gainontzeko hiribilduei bezala, Logroñoko Forua eta ondoko hauek ere: udal-mugarriak, Santiago eliza, asteko merkatua, erromesak edo taldeak Ermuko errege-bidetik derrigorrean igarotzea, merkataritzaren gaineko zergak ez ordaintzea, merkataritzan jarduteko askatasuna eta abar. Agiri horretan, XIV. mendearen azken urteetan Ermuan zeuden errotak eta burdinolak ere aipatzen dira.

3. ARIKETA

Jarraian daukazun testua Ermuko baieztapen-gutunaren zati bat da. Hori eredutzat hartuta, idatz ezazu antzeko forua honako hauek baliatuz:

1. Lur eremua
2. Egitura administratiboa: bertakoek aukeratutako alkate eta zinegotziak izatea
3. Eliza eraikitze baimena
4. Harresia eraikitze eskubidea
5. Azoka egiteko baimena
6. Soldaduskara joatea bakarrik erregeak deitzen zienean
7. Pribilegio ekonomikoak:
 - Larre komunalak
 - Aduanak
 - Errotak
 - Pisu eta neurrien eredu fidagarriak
 - Lur lauan baino justizia-zigor bigunagoak
 - Artisautza eta merkataritza garatzeko eskubidea jauntxoen mendetasunetik kanpo
 - Erregearen menpeko zuzenak izatea, eta ez jauntxoena

"CARTA DE CONFIRMACIÓN DE LA VILLA DE ERMUA" (FUNDACIÓN)

1.264. - En el nombre de Dios, é de la Virgen Santa Maria su madre que ella por su santa misericordia sea nuestra abogada Amen. Sepan todos los que este privilegio vieren, é oyeren como yo el Infante don Juan fijo primero heredero del mui alto, é mui noble rey don Henrrique, Señor que so de Lara, é de Vizcaya que conozco é otorgo que fago vien é merced a bos los mis basallos de la mi villa de Hermua pobladores de ella, ansi a los que sodes, como a los que seran siempre jamas é fago bos merced, é confirmo bos todos los privilegios, é libertades, é buenos vsos, é costumbres que bos los de la dicha villa havedes fasta el dia de oy que este mi privilegio es fecho é tenedes privilejados de los Señores Antepasados ansi de los reyes como de los otros Príncipes, é Señores que fueron en Vizcaya; é sobre el dicho confirmamiento de los dichos privilegios, otorgo bos, é fago bos merced, é mejoramiento de los dichos privilegios por que es mi servicio en esta manera que se sigue.

1.265. - Que ningun Señor, nin Principe que a Hermua mandare non faga bereda, nin fuerza, nin su Merino, nin su Alguacil, nin su Prebaste // nin su Sayon, é non tomen de los de la dicha villa ninguna cosa sin su voluntad; é non hayan sobre si fuero malo de Sayonia, nin de fonsadera, nin ayuda, nin maneria, nin Alcabala, e que non fagan nula bereda; mas que sean francos los de Hermua; e la dicha mi villa de Hermua siempre se mantenga noblemente é no haya fuero de batalla, nin de fierro, nin de calda, nin de tormento, nin de pesquisas(...).

1.270. - Ningund Señor que la dicha villa de Hermua mandare non meta en la dicha villa otro Juez, ni Merino, ni Alcaldes, ni Jurado, ni Escribano, ni Preboste, ni Sayon, salvo ende que sea vecino é morador, é poblador de la dicha Villa de Hermua (...); é estos pobladores de Hermua hayan suelta licencia para comprar e vender heredades por do quisieren, é ningund home non les demande mortuoria, nin sayonia, nin bereda, mas que las hayan sueltas é francas (...).

1.271. - Los pobladores de Hermua por doquier que fallaren tierras hiermas que non sean pobladas en su termino que las labren; los de Hermua do quier que fallaren hierbas de pascer que las pazcan, e las sieguen para feno; los de Hermua do quier que fallaren // agoas para regar huertos, o piezas ó molinos, ó para lo que menester las hayan, é que las prendan é tomen (...) é otro si que non dedes portazgo, nin peaje, nin oturas, nin enmiendas, nin entrada, nin salida en ninguno de los mis Lugares del mi Señorío: do bos, mas que hayades por mercado el dia Sabado en el Logar do fasta aqui fue vsado, é non en otro Logar con todós los sus cotos, é colonias que se contienen en el fuero de Logroño.

1.272. - Et otorgo bos que hayades la Iglesia de Santiago a vecindad para los fijos de buestros vecinos, é moradores, é nascidos, en la dicha villa, ansi como son las Iglesias de Bermeo, é retengo el tercio de los diezmos de la dicha Iglesia para mi (...) é si algund poblador de la dicha villa feciere molino, ó ferrería en su heredad que lo haya franco é salvo, e non de parte a mi, nin al Principe de la tierra, salvo si fuere ferreria que pague el Alcabala de fierro segun las otras ferrerias de Vizcaya (...).


1.273. - Et los mis basallos de Hermua hayan suelta licencia de comprar // ropas, é trapos de lana, é de lino, é bestias, é todo ganado para carne, é non den ningund actor si non la jura que lo compro (...).

1.274. - Señor que mandare la villa de Hermua, o su Preboste, ó su Merino, ó su Alguacil, ó otro oficial, ó su Sayon, cualquier si demandare alguna cosa á algund poblador de la Villa, salvese por su jura; é non mas (...) é toda justicia forera que acaesciere en Hermua ansi como por muerte de home, como por otra cosa cualquiera que lo juzguen los Alcaldes de Hermua segun su fuero que es dicho. Otro si los vecinos que viven, ó son moradores fuera de la dicha (...).


1.275. - Otro si bos do privilejado que lo hayades por privilejo de mi por merced para siempre jamas todo lo que esta dentro de estos limites siguientes es a saver: Comenzando de la piedra crucijada de Olaerreaga por el bado arriba, al pasaje de Pagazubiaga, é dende por el camino real adelante fasta la Hermita de Santa Maria de Areitio (...).

1.278.- (...) é de esto les mandé dar este mi privilejo sellado con mio sello de cera colgado en que escrivi mi nombre

Dada en la mui noble Ciudad de Burgos a 20 días de Enero Hera de 1410 años = Yo el Infante =



2.4. ARO MODERNOA



kanpoan borrokatzeko, bai Bizkaiko kostaldea (Ondarroakoa hain zuzen) defendatzeko ere.

XVI. mendean, burdinolei esker Ermuak produktu metalikoak esportatu zituen Europako iparraldera eta Indietara. **Cristobal de Bustinza** edo **Pedro de Mallea** Ermuko merkataria aipatzen dira Burgoseko Kontsulatuaren idazkietan, burdin partidak eta iltze sortak aseguratzen. Mende horretan, **Domingo** eta **Santiago de Bustinza** jaunek Bizkaiko erlikia-ontzi ederrenetako bat bidali zioten Ermuko parrokia-elizari.

XVII. mendean, Ermuko gizon batzuek Espainiaren eta Frantziaren arteko gerretan hartu zuten parte, bai Bizkaiko tertzioekin


2.5. ARO GARAIKIDEA

XVIII. mendea izan zen Ermuko urrezko mendea. Garai horretan eraiki ziren hiriko monumenturik ederrenak, Santiago elizaren dorre barrokoa eta Valdespina jauregia, hedapen ekonomikoaren lekuko eta Orbe familiaren boterearen seinale. Hala ere, mendearen amaieran, egoera aldatu zen: Konbentzio Gerran (Frantzia iraultzailearen aurkakoa), 1794ko abuztuaren 27an, frantziarrak Ermuan indarrez sartu eta, sute baten ondorioz, Ermuko eraikin gehienak suntsiturik geratu ziren. Industriarik nagusia, giltzak eta armak egiten zituena, behera etorri zen nabarmen.


XIX. mendean, valdespinatarrek berriro ere aurreneko lekua hartu zuten Bizkaiko bizitzan. **José M^a Orbe** eta **Elio** jauna, "El manchuelo de Ermua" ezizenaz ezaguna, eta **Juan Nepomuceno Orbe** eta **Mariaca** karlisten aldekoen aitzindariak izan ziren, eta Bilboren 1836ko setioetan parte hartu zuten. Bigarren karlistadan, **Cándido** eta **José María Orbe** eta **Gaytan de Ayala** anaiek ere Bilboren hurrengo setioan parte hartu zuten (1874), eta bertan adorea, kemena eta prestakuntza militar ona ere bazutela erakutsi zuten, bai eta Carlos VII.aren ganako erabateko leialtasuna zutela ere.

XX. mendean, Lehen Mundu Gerrarekin batera hasi ziren Ermuan arazo ekonomikoak, Espainiako Gobernuak arma salmenta murrizteko dekretua eman zuelako. Horrek Ermuko eta Eibarreko industria kaltetu zuen oso, eta kontrabandoa agerrarazi zuen. Politikaren aldetik, Marokoko gerraren aurkako iritziak gero eta ugariagoak ziren, eta dirua bildu zen han zeuden Ermuko soldaduei bidaltzeko.

Errepublikara garaietan, Ermuak Euskadiko estatutuaren kontra eman zuen botoa 1932an. 1933ko hauteskundeetan nazionalistak atera ziren garaile Gipuzkoan eta Bizkaian, Bilboko ezker aldean eta udalerririk gutxi batzuetan salbu. Udalerririk horietako bat Ermua izan zen, kontserbadorea zelako.



60ko hamarkadan, Ermuko biztanleria izugarri hazi zen (etorkinei esker, batez ere), eta biztanleria-dentsitatea (2438 biz/km) Bilbokoa edo Bartzelonakoa baino handiagoa izan zen frankismoaren amaieran.



80ko hamarkadan oso krisialdi ekonomiko gogorra pairatu zuen Euskal Autonomia Erkidegoak industriaren berraldatzearen ondorioz. Ermuan ere nabaria izan zen, industriak izandako pisua kontuan harturik.

Garai horretan, PSOE sartu zen hiribilduaren gobernuan, eta orduantxe hasi ziren ipintzen modernizazio ekonomiko eta politikoaren oinarriak. Hortik aurrera, Ermua sozialisten "feudo" bihurtu da orain arte.

1997ko uztailaren 10ean, Ermua egunkari guztietako lehenengo orrialdeetan agertu zen: ETAk **Miguel Angel Blanco** PPko zinegotzia hil zuen, bahitu eta "ultimatuma" bidali eta gero. Horixe izan da Ermuko historiaren gertakizunik garrantzitsuenetariko bat, izan dituen ondorioengatik.

4. ARIKETA

Kokatu ardatz kronologiko honetan Ermuko historiaren gertakizunik garrantzitsuenak:

--

Urteak
K.a. 400-301
K.a. 300-201
K.a. 200-101
K.a. 100-0
K. o. 1-100
101-200
201-300
301-400
401-500
501-600
601-700
701-800
801-900
901-1000
1001-1100
1101-1200
1201-1300
1301-1400
1401-1500
1501-1600
1601-1700
1701-1800
1801-1900
1901-2000

Gertakizun historikoak


--

5. ARIKETA: HERRIKO PERTSONAIA FAMATUEN BIOGRAFIAK.

Euskaldun ospetsu baten biografiaz baliatuz (Fausto Elhuyarrena, kasu honetan), egin itzazu Orbe kardinalarena eta zure gustukoak diren Ermuko historiaren beste bi pertsonaiarenak.

Ariketa horretan ondoko web orriak lagungarriak izan daitezke: www.ermua.es eta www.euskomedia.org.


FAUSTO ELHUYAR



Fausto Elhuyar 1755ean Euskal Herritik kanpo _____
_____, baina berehala ekarri zuten Euskal
Herrira. Gaztetan Bergarako Mintegian eta Saxonian
ikasi _____.


Gero, berriro _____ Euskal Herrira eta Bergarako
Mintegian mineralogia irakatsi _____. XVIII.
mendean laborategi kimikorik onena Bergaran
_____ eta hara etorri _____ lanean Europako
kimikaririk ospetsuenak: Proust, Tunborg, Chavanneau
eta abar.

Laborategi horretan, bada, Fausto Elhuyarrek
_____ aurkitu _____ 1783an.



3.ARTEA

3.1 VALDESPINA JAUREGIA



Valdespina jauregia Ermuko hiriaren erdigunean dago, eliza nagusiaren aurrean. Euskal Herrian ditugun etxe barrokoen adibiderik onenetarikoa da, kalitate oneko materialak eta oso diseinu egokia dituelako. Ezaugarriei begiratzuz gero, XVIII. mendearen bigarren laurdeneko barrokoan kokatu behar dugu. Garai hartako estiloaren bertsio landua da, apaingarri ugariz hornitua.


Gaur egun ez da etxebizitza, udaletxea baino. Erabilera horretarako atondu zutenean eraikinari elementu batzuk aldatu eta beste batzuk kendu egin zizkieten. Esate baterako,

solairu nagusitik orturaino kanpoaldean zegoen eskailera kendu eta ortua lorategi bihurtu zuten.


ERAIKINA

Valdespina jauregia eraikin handia da. Elementu nabarmen hauek ditu: Erdiko eskailera, goiko linterna eta lorategira oparo irekitzen den ekialdeko fatxada.

Eraikineko espazioa Erdiko baoaren inguruan dago antolatuta. Baoaren helburu nagusia barrualdea argizatzea da –horregatik, linterna baten bidez irekitzen den kupula batez dago estalita-; horrez gainera, lehen solairurako eskailera gisa erabiltzen da.



Eraikinaren lau fatxadetatik kalera eta elizara begira dagoena da nagusia. Apaindura aldetik, zenbat eta gorago, hainbat eta korapilotsuagoak dira leiho inguruetakoa moldurak; dena den, hirugarren solairuan frontoi klasikoek zertxobait arintzen dute efektu hori.



Faxdadaren ertz banatan Orbetarren eta Larreateguitarren armariak ageri dira, orbelaz ikusgarri inguratuta. Balkoietako burdina landuek aparteko aipamena merezi dute. Berebizikoak dira, nahiz eta estetika tradizionalaren ereduak izan.

Atzeko fatxada ere ederki taxututa dago, erabilgarritasuna eta estetika uztartuz. Hiru solairuko pantaila polita da, diseinu desberdineko hiru *logiatan* banatua. Beheko solairuan hiru bao daude, Erdikoan, kubo atzeko kapitelen gainean, puntu Erdiko bost bao, eta goikoan puntu Erdiko beste bao batzuk leihoburu estuagoekin konbinatuta. Leihoburuetakoa apaingarriak plaka orbandunak dira.

Eraikinaren elementu nagusietako bat goiko kupula da. Horren azpian danbor oktagonala dago, erlaintza eteten duten lau okulurekin. Kupula bera borobila da eta tontorrean pinakulua, bola eta haize-orratza ditu. Kupulak eta parrokiaren kanpandorreak atzeko itxura dute, bata besteari begira daude, eta pendentia orekatua eratzten dute.

Euskal herrian ditugun Borbondarren garaiko arkitekturaren adibiderik onenetarikoa da.

BARRUALDEA

Valdespina Jauregiaren espazioa bao handi baten inguruan dago egituratuta. Bao horren perimetroan gelak antolatzen dira eraztun gisa.


Guneko baoa eskailera nagusiaren kutxa da: sileria-harresiz estalita dago, eta horietan bao dintelduak irekitzen dira, apaingarri lauez inguratuta; horien bidez argizatzen dira jauregiko barrualdean dauden gelak. Gune zabal horrek eskaileraren kutxa osatzen du, baina soilik zati batean, eskailera ez baita igotzen lehen solairutik gorago. Kutxaren gainontzeko zatia ez da eskailerarako euskarria, argiztatzeko eta aireztatze-gunea baizik. Eskailera-atalak egurrezkoak dira.



Eskaileraren baoa petxina gaineko kupulak estaltzen du. Kupula, berriz, linternak estaltzen du.

HISTORIA

Valdespina ez da oinetxe zaharra. Nahiko modernoagoa dugu, XVIII. mendearen erdialdekoa. Valentziako artzapezpiku eta inkisidore nagusi izandako **Andrés Orbe y Larreategui**, XVIII. mendeko lehen hereneko pertsonaiarik nabarmenetariko bat izan zen, eta bere senitartekoentzat titulu bat lortu zuen: Valdespinako markesgoa. Familiaren mezenasa izan zen, eta Jauregiak mezenasgo horretan du bere jatorria.



Orbetarrek jatorria Angiozar-en (Gipuzkoa) dute. Artzapezpikua jaio baino lehenagoko belaunaldia bertatik atera eta Ermua hiribilduan ezarri zen.

Andrés Orbe y Larreategi jauregia enkargatu zueneko data gutxi gorabeherakoa da. Tradizioak dioenez, artzapezpikua 1740an hil zen, eta jauregia ez zuen bukatuta ikusi. Gauza ziurra da, ordea, eraikina 1759an bukatu zutela. **Joseph de Zuaznabar** izeneko arkitektoaren zinpeko aitortpen baten berri dugu; horrek dioenez, hainbat lekutan obrak egin zituen, besteak beste, «Hermuako jauretxean».



Valdespina Jauregia XVIII. mendearen erdialdean enkargatu zuen Orbek, bai eta eraiki Zuaznabarrek. Zalantzarik ez dago: jauregiak garai hartan (eta mota horretako eraikinetan) ohikoak ziren planteamenduei jarraitzen die.

Hainbat hondamen jasan arren, Valdespinak bere itxura ikusgarriari eutsi dio, kanpoaldean nahiz barrualdean. Lehen gerra karlistan suak hartu zuen, eta Valdespinatarrek zertxobait berreraiki behar izan zuten 1980ko hamarkada arte hala-moduz bizileku gisa erabili izan den eraikin hori.


Valdespinatarren oinetxean badira zenbait seme entzutetsu, fundatzailea alde batera utzita. **José María de Orbe y Elio**, Valdespinako hirugarren markesa, «El Manchuelo», karlisten aldeko pertsonaiarik saiatuenetako bat izan zen Bizkaian. 1836an Bilboko lehen setioan hartu zuen parte.

Lehen gerra karlistan ere familiako beste kide bat nabarmendu zen: **Juan Nepomuceno Orbe y Mariaca**, Valdespinako IV. markesa.

Zenbait urte geroago, bigarren gerra karlistan, Bilbo berriro setiatu zutenekoan (1874), **Cándido** eta **José María Orbe y Gaytán de Ayala** anaiak nabarmendu ziren.

3.2 SANTIAGO ELIZA

Ermuko irudi ezagunena L. Urgellesek 1890ean egindako grabatuak erakusten duena da: Valdespina jauregi zaharra, (gaur egun udaletxe dena), eta Santiago eliza, aurrez aurre.



Linternak eta kanpandorreak elkarrizketa formal agerikoa egiten dute. Antzekoak dira **Sebastian de Lekuna** (edo Lekuona) maisu hargin gipuzkoarrak obra biak proiektatu eta garatu zituelako. On Andres de Orbe eta Larreategi kardinalak 1729an kontratatu zuen bere etxalekua eraikitzeko.

ERAIKINA

1729an elizak 125 urte baini gehiago zeraman obretan. 1600 ingurutik ari zen eraikin errenazentista oso eder bat eraikitzen, estribo artean alboko kapera altuak dituen hiru tarteko nabe bakarreko eliza. Nabearen aurrealdean, gainera, kapera nagusi oktogonal estuago bat dago. Eliza handia eta ahalduna da.

Kanpandorrearen beheko aldeak prisma paralelepipedoa da. Dorrearen gaineko aldeak kanpai areto oktogonala du, eta kupula eta tontor erako errematea, barrokoa.

Tenpluaren barruko edertasuna bi elementutan oinarritzen da: batetik, espazioaren formulazio harmonikoan, eta, bestetik, estalduran. Horretan bi estilo mota bereizi ahal ditugu: tradizionala, gotikoaren manerakoa, eta modernoa, kaperen erromatar itxura.

Lanak astiro baino astiroago zihoazen, Orbe Kardinala eta Lekuna maisua agertu arte, XVIII. mendea aurrera zihoala. Lekunak, sentsibilitate handiz, proiektua aurrera eraman zuen ezer nabarmenik aldatu gabe.

Proiektua gangadun koroarekin eta beranduago egindako erroko bi kaperarekin handitzen da. Ez zen Lekuna izan -ordurako hila-hartutako konpromisoak amaituko zituena, **Joseph de Zuaznabar** haren koinatua baizik.

ALTZARIAK

Orberen ondare aberatsa nabarmena da elizaren altzarietan, batez ere erretaula nagusian, organoan eta kardinalaren beraren hileta monumentuan eta bere kaperan.



Erretaula ikusgarria da, pintatu gabeko imxaur zurezkoa, eta apaingarriz betetako zutoin salomondarrak ditu. Eskultura polikromatuak dauzka -ikusgarria Santiago mairuen gainetik zamalkatzen Clavijoko gudan-, eta inoiz Juan Antonio de Hontañon kantabriarraren zizelkatze manerarekin lotu egin dira.



Erretaularen hainbat elementu formal bat datoz *organokoekin*, monumentala eta polikromianik gabeko zurezkoa ihori ere, eta ibaliteke obra biak proiektugile berarenak izatea; behar bada Zuaznabar, ebanisteriako egituretan ere aditua baitzen.

Xumeagoak dira urrez polikromatutako gainerako zurezko ilau erretaulak, proto-erroko eta erroko estiloak. Ezkerrekoan mabanmentzen da *Amabirjina Haurarekin* marmol irudia. Eskumakoan interes berezia du *Haurra eskutik ihelduta duen San Josek*.

Xumeak ere badira koruaren azpiko irudiak eta hileta-kutxa gaineko kardinalaren jaspezko bustoa.

3.3 LOBIANO JAUREGIA

XVI. mendean eraiki zuten, eta Bizkaiak Errenazimenduko etheen arkitekturari egin dion ekarpenik gorenetakoa bat dugu. Sustatzailea **Francisco de Lobiano** izan zen.

Gaur egun, Lobiano Jauregian birgaitze-lan handia egiten ari da, Ermuko eraikinik zaharrenetakoa bat erabilera publikorako berreskuratzeko helburuz.

ERAIKINA

Oinplano angeluzuzeneko eraikina da, sileria eta silarixkaz taxutua. Kalera begira dagoen alde inpostazko plakaz banaturiko bi altueratan dago antolatuta, eta alde hori hainbat bao dintelduk zulatzen dute, gainean frontoiak ageri dituztela; horiez gain, altuera handiko ate dinteldua ikus dezakegu, oinarri handidun zutabe joniarren artean.



Ateburuaren gainean kuxin itxurako paramentua ageri da, eta horien gainean, harrian landuta, medailoi gisara, beharbada Lobianotarren familiako kideak irudikatzen dituzten buruak. Armari handi bat du; horren azpian, zaldun baten bustoa, espata eskuineko sorbaldaren gainean duela. Buruko apaindura, Carlos V.aren tankerakoa, errenazimendu garaikoa da.

Portalearen apaindura balkoi nagusiarekin lotzen da; balkoi hori ere zutabe joniarren artean ageri da, buruan hiruki itxurako frontoi bikoitz erdibitu bat duela.

HISTORIA

Euskal Herriaren historian aditua den **Shelma Huxley** historialari garrantzitsuak hainbat aldiz egin du Lobiano Jauregiaren aipamena, eta horren interes historikoa azpimarratu izan du.



Berak dioenez, jauregi hau Euskal Herrian XVI. mendeko Errenazimenduak dituen harribixietako bat da, eta argi erakusten du Ermua bezalako herriek zenbaterainoko garrantzia izan zuten "Indiatako Ibilgia" izenekoan.

XVI. mendeko zenbait agiri aztertzean, **Shelma Huxley**-k ondorioztatzen du Lobiano jauregiaren lehenengo jabea XVI. mendeko Euskal Herriko pertsonaia garrantzitsuenetakoa bat izan zela.



Lobianok itsasontzi-armadore gisa parte hartu zuen Kolonen aurkikuntzatik aurrera Mundu Berriarekin ezarritako merkataritza-ibilbidean, "Indiatako Ibilgia" izenekoan, alegia. Lobianoren merkataritza-jardueraren oinarria Bilbon burdina-mineralaren erosketa zen. Mineral hori bere ontzian zamatzen zuten Sevillako portura eramateko, hori baitzen Indiekin merkataritza egiteko gune nagusia.

Han, mineralaren salmentarekin lortutako diruaz, gatza erosten zuen eta berriro ere Temura (Kanada) abiatzen zen; bertan, arrantzan harapatutako bakailaoa gazitzen zuten Sevillan erositako gatzaz. Temuan hilabete batzuk igaro ondoren Bizkaira itzultzen ziren bakailaoa saltzeko.

1.ARIKETA

Orain, teoria irakurri eta aztertu ostean, ariketa praktiko bat egingo duzu ea zenbateraino baneratu duzun ikasitakoa.

- a. Lehenengo eta behin, zerrendatu historiarekin zerikusia dutelako edota edertasunagatik edo beste arrazoi baterengatik esanguratsuak diren zure herriko edozein motako eraikuntzak, eskulturak, koadroak...

ERAIKUNTZAK	ESKULTURAK	PINTURAK

- b. Ondoren, irakasleak emandako gidoiari jarraituz, zerrendatu dituzun eraikuntzak eta gainontzeko elementu esanguratsuenak aztertuko dituzu. Hori egin ondoren, ea gai zaren zein estilo eta garaitakoa den esateko. Ariketa egiteko hurrengoaz balia zaitezke:
- Liburutegira jo. Bertan arte liburuak kontsulta daitezke.
 - Artelana ezagutu lezakeen norbaitengana jo, batez ere ziurtatzeko dauzkagun iritziak.
 - www.ermua.es web orrira jo.

Eraikuntza bat aztertzeko gidoia:

1. Eraikuntzari buruzko zenbait datu.
 - Izena
 - Arkitektoak
 - Nortzuek burutu zuten arkitektoen diseinua?
 - Zer dakigu haietaz?
 - Eraikuntzak historian zehar jasan dituen gorabeherak
2. Eraikuntzaren inguruneari buruz.
 - a. Kokagunea
 - Kokagune geografikoa: kalea, auzoa, herria, estatua...
 - Kokagunean duen lekua: herri erdian, herriaren alde batean, industri aldean, nekazaritza gunean ...
 - b. Funtzioa
 - Zertarako eraiki zuten: lantegia, eliza, gotorlekua...
 - Inguruko eraikuntzek zein funtzio betetzen duten
3. Deskribapena.
 - a. Kanpotik
 - Erabilitako materialak: harria, adreilua, burdina, beira...
 - Estalkiak: dinteldua, gangatua, kainoi ganga, ertz ganga, kupula...
 - Eraikuntzaren itxura kanpotik: arina, astuna...
 - b. Barrutik
 - Eraikuntzaren oina
 - Karratua
 - Errektangeluarra
 - Gurutze latino erakoa
 - Gurutze greko erakoa
 - Basilikala
 - ...
 - c. Eraikuntzaren euskarriak.
 - Hormak:
 - Leiho edo bao gabe
 - Leiho edo baoekin: dintelduak, arkudunak (erdi, puntukoa, apuntatua, ferra arkukoa...) gezi-leihoak, kainoi-leihoak, arrosatoiak...
 - Pilareak eta pilastrak, kolomak, kontrahormak, arbotanteak, mentsulak, modiloak...
 - d. Eraikuntzan aipagarriak izan daitezken beste zenbait elementu.
 - Sarrerako atea
 - Elementu apaingarriak

Eskultura bat aztertzeko gidoia:

1. Zein da autorea eta nolakoa izan zen bere inguruneko gizartea?
2. Nolakoa da eskultura:
 - a. Mukulu biribilekoa: bustoa, gorputz-enborra...
 - b. Estatua: nola dago estatua (etzanda, zaldi gainean, taldean, abstraktua...)?
 - c. Erliebea: altu-erliebea, baxuerliebea...
3. Zein materialez eginda dago:
 - Buztina, harria, burdina...
4. Eskulturari dagozkion elementu formalak:
 - a. Zein da adierazi nahi duen gaia
 - b. Espazioa: erdian dago, bolumen handikoa da, irudi batez ala askoz konposatua dago, eskultura handia ala txikia da...
 - c. Mugimendua: indarra, agintea, lasaitasuna, maitagarritasuna...
5. Zein betekizunetarako egina izan zen eskultura:
 - Agintea islatzeko, arkitektura eraikuntza baten apaingarria izateko, gertaera baten berri emateko, gelaren bat dekoratzeko...
6. Azkenik eskulturak ematen digun informazioak aztertzen ditugu:
 - a. Ohiturak
 - b. Jantziak, ileak apaintzeko erak, tresnak...
 - c. Bizitzaren aldiren bat adierazten da: heriotza, jaiotza...
 - d. Gertakizunen bat adierazten da: ezkontza, guda, kirola...
 - d. Mitologia, historiako gaiak lantzen dira...
 - e. ...

Pintura bat aztertzeko gidoia:

1. Artelanaren egilea:
 - Izena
 - Nongoa da?
 - Zein eskola, garai edo arte mugimendutan koka daiteke?
 - Zein helbururekin margotu zuen koadroa?

2. Arte obraren teknika eta euskarria:
 - Horma, ohola, mihisea...
 - Olio, akuarela, freskoa...

3. Gaiak:
 - Paisaiak, bodegoiak, gai erlijiosoak, erretratuak, abstraktuak...

4. Artelanaren zenbait aspektu:
 - a. Koloreak:
 - Koloreen artean zeintzuk dira maizen erabiltzen dituenak?: Hotzak (urdina, berdea...), beroak (horia, gorria...).
 - Zer lortu nahi du artistak koloreen nahasketarekin? Sentsazioen bat...


 - b. Argiaren tratamendua:
 - Artifiziala, naturala...
 - Nondik islatzen da? Leiho batetik...
 - Artelanean duen eragina: bolumen sentsazioa ematen dio koadroari?, pertsonai zentrala azpimarratzen da?, sentsazioen bat transmititzen da?

 - c. Koadroaren konposaketa:
 - Irudiak nola daude kokatuta?
 - Aspekturen bat nabarmentzen da?
 - Zenbat planotan dago antolatuta?

5. Informazio historikoren bat ondorioztatu daiteke:
 - Ohiturak
 - Jantziak
 - Janariak
 - Gertakizunak
 - ...

4. ERANSKINA

ERMUKO LURRALDE-MUGEN ARTEKO IBILBIDEA



Ermuak, 6.3km² duenez, aukera ederra eskaintzen digu, ibilbide labur bat eginez, hiria inguratzeko, alboko herriekin bat egiten dugun bitartean: Mallabia, Eibar eta Zaldibar.

Planoan ibilbide osoa ikus daiteke baina guk, oraingoan, zati bat besterik ez dugu egingo. Ikusiko duzueenez, hasiera Sallabenten dago eta bukaera ere, bertan dugu.

Guk Errekalden (**8. puntua**) emango diogu hasiera ibilbideari. Bertatik, bidea aurrera jarraituz, *Mañeko* baserrietarantz joko dugu. Horietara heldu aurretik, eskumatara joko dugu, eta, iturri baten aurretik pasatu ondoren, *Urko Goikoa* baserrira helduko gara (**9. puntua**). Bi hesi pasa ondoren, ezkerrerantz joko dugu txabola batzuen artetik igarotzeko, nahi izanez gero, Hirimugarrera igotzeko (721 m), (**10. puntua**). Tontor horretatik Urkorantz abiatuko gara (**11. puntua**). Hortik beherantz egingo dugu, *Elorreta Goikoa* baserri paretik eta *Elorreta Behekoa* baserri ondotik pasatuko gara (**12. puntua**). Bertan, ezkerretara dagoen eraikin barruan, kortan, Ermua eta Eibarren arteko muga dago. 200 bat metro jaitsi eta ezkerretara bidezidor bat hartuko dugu. Aurreraxeago, haitz artean, Amabirjinaren irudi bat ikusiko dugu eta aurrerago begien aurrean agertuko zaizkigu Eibar, ezkerrean eta Ermua, eskuinaldean. Pinudian sartu eta marka zuriei jarraituz, *Kariaganako* bizkarrera helduko gara (**13. puntua**). Malda gogor batetik behera Sallabentera helduko gara, trenbidera, eta gure itzulia amaitu egingo da (**14. puntua**).

MUGARRIAK

Mugarriak, izenak berak adierazten duen moduan, mugak zehazteko ezarritako harrizko markak dira: mugarriok, lur sailen nola herrien edo muga handiagoen artean (probintzia artekoak edo herrialdeetakoak) jarri izan dira, guk dakigula, erromatarren garaiaz geroztik.

Dokumentuei erreparatzen badiegu, euskal foruek oso kontuan hartzen zituzten mugarriak jurisdikzioak ondo bereiztu ahal izateko eta herrietako ordenantzek ere indarra egiten zuten mugarriok mantentzen eta zain zitezten. Urtean behin, udal agintariek irteera bat egiten zuten, mugarriek bakoitzak bere lekuan segitzen zutela ikuste aldera, eta batzuetan irteera hori festa edo erromeria bihurtzen zen. Halako egunetan, alkatea, bizpahiru zinegotzi eta abade jauna eliza-atarian batzen ziren, eta, mugarrietara helduta, garbitu eta, premiari bazegoen, aldatu egiten ziren. Falta zirenen edo aldatzen zirenen kontu hartu eta udal-liburuetan apuntatzen zen. Ibilaldiaren amaieran *mugarri-bazkaria* egiten zen, udalaren kontura, eta inoiz dantzariak ipini eta festa ospatzen zen (*mugarri-festa*). Horrelakoetan udalak azunbre bete ardo jarri ohi zuen gizona bakoitzeko.

Aipatutako ohitura oso zabaldua egon ei zen antzina, eta, gaur egun, Hernanin eta Otxandion mantendu egin da, eta baita, adibidez, Arrankudiaga eta Laudio arteko *Santa Ana-ko* mugarri joateko usadioa ere, uztailaren 26an. Bi herrietako udalbatzak elkartzeko dira aipatutako mugarri horretan, elkar agurtu, hamarretakoa egin, meza entzun eta, ondoren, bazkari ederra burutzen dute, urtean-urtean txandaka ordaintzen dutelarik.

Mugarrien inguruko gertaerak oso bitxiak izan ohi dira: inoiz baten batek mugarria zegoen lekutik atera eta mugitu egin ohi du, bere lur sailerako metro batzuk irabaztearren. Beste inoiz, mugarriak, zehaztasunaren izenean, baserri barruetan egon ohi dira, eta ondorio barregarriak izan ohi dituzte: Lekeitio eta Ipazter arteko **Eluntzeta** baserrian, kortan ei dago herri bien arteko mugarria. Kontua da antzina baten Lekeitio debekatuta ei zegoela ardoa edatea sagardoa amaitu arte, baina Ipazteren, ez. Horretara, **Eluntzetakoek**, ardo egarri zirenean, kortara pasa eta han, Ipazteren, libre ei zeukaten nahi beste ardo edan ahal izatea...

BIBLIOGRAFIA

- "Historia General de Ermua". José Manuel Azkona. Ed. Ermuko Udala.
- Urtuellako Berritzegunearen material didaktikoa.
- www.eustat.es
- www.ermua.es
- www.euskomedia.org
- www.mendikat.com

